

Sketch of the Guggenheim Bilbao Museum by Frank Gehry.


Guggenheim Bilbao Museoaren
jardueren ekonomia eragina 2005an
Euskal Autonomia Erkidegoan

Sarrera

1998. urtean Guggenheim Bilbao Museoak aholkularitza enpresa bati eredu makroekonomiko bat garatzeko enkargua egin zion, bere jarduerak Euskal Herrian aberastasuna sortzen edukitako eragin ekonomikoa neurtu ahal izateko. Ordutik hona Museoak azterlan horren emaitzak urtero eguneratzen ditu eta 2001. urtean azterketan honako elementuak sartu ziren:

- Eragindako efektuak kontuan hartzen dira.
- Enpresa eta erakunde ezberdinek ospakizun bereziak egiteko Museoko espazioen alokairuagatik egindako gastu zuzena sartzen da.
- Jatorriaren arabera bisitarien gastu-perfila berrikusten da, aisialdiko gastuaren kontzeptua ere kontuan hartuz.
- Sektore bakoitzerako biderkatzaile bereziak aplikatzen dira: txikizkako merkataritza, ostalaritza, garraioa, olgeta- eta kultur jarduerak eta beste enpresa-jarduera batzuk.

Eragin-eredua



Eragin Ereduen emaitza nagusiak

Guggenheim Bilbao Museoaren 2005eko jardueren ekonomi eraginaren azterketaren ondorio nagusietan ondorengoak nabarmendu behar dira.

Museoaren jarduerak 2005an Euskadin eragindako gastu zuzena guztira 165.835.281 eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du bisitari bakoitzak 171,84 euro gastatu zituela batez beste. Guztizko gastu zuzena ondorengo kontzeptuen batuketa eginez lortzen da:

- 139.366.854 euro Museoa ez beste instalazioetan egindako gastuei dagozkio, egindako inkestetatik ateratako gastu-perfilaren arabera. Museoaren jardueragatik onura handiena izan duten sektoreak ondorengoak dira:
 - Gastronomía: 44.691.942 euro jatetxe, taberna eta kafetegietan.
 - Erosketak: 17.790.343 euro denda eta saltokietan.
 - Ostatu hartzea: 55.916.605 euro hoteletan, pentsioetan eta bestelako ostatuetan.
 - Garraioa: 11.902.364 euro alokairuetan, gasolinan, bidesarrietan, txarteletan eta abarretan.
 - Aisialdia: 9.065.599 euro zineman, antzokietan, beste museo batzuetara egindako bisitetan eta abarretan.
- 9.255.000 euro bisitariak Museoaren instalazioetan egindako gastuari dagozkio: sarrerak, gidaridun bisitaldiak, Denda-Liburutegian egindako erosketak eta kafetegi nahiz jatetxe gastua.
- 16.196.209 euro enpresen gastuengatik eta Banakako Kide nahiz Kide Korporatiboen ekarpenengatik, dirulaguntzak, ekarpenak eta beste sarrera batzuk.
- 1.017.218 euro Museoan ospakizun bereziak antolatzearen ondorioz eratorritako gastu zuzenengatik.

Horrenbestez, eta kontuan hartuz efektu zuzenak, zeharkakoak eta eragindakoak, Guggenheim Bilbao Museoaren 2005eko jarduerak 186.197.551 euroko BPGren aberastasuna sortu dute, baita Euskal Ogasun Publikoentzako 29.810.227 euroko sarrera gehigarriak eta 4.893 enplegu mantentzeko ekarpena ere.

Ondoren, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak, 1997ko urrian zabaldu zenetik 2005ko abenduaren 31 arte Euskal Autonomia Erkidegoan edukitako eragina zehazten da:

Eurotan	1997	1998	1999	2000	2001 (2)	2002 (2)
Eragina						
Gastu zuzenak	40.568.317	190.400.635	202.799.514	191.903.165	149.724.135	143.706.595
BPGren sorrera	31.517.075	147.921.099	157.555.323	149.087.063	168.331.470	162.327.827
Enplegua (1)	832	3.906	4.161	3.937	4.415	4.265
Ogasunentzako Sarrerak	5.871.888	27.562.415	29.359.441	27.784.790	26.949.383	25.988.685

Eurotan	2003 (2)	2004 (2)	2005 (2)	GUZTIRA
Eragina				
Gastu zuzenak	153.745.225	163.711.085	165.835.281	1.402.393.952
BPGren sorrera	173.089.191	184.046.738	186.197.551	1.360.073.337
Enplegua (1)	4.547	4.842	4.893	4.361
Ogasunentzako Sarrerak	27.711.580	29.465.882	29.810.227	230.504.291

(1) Enplegua mantentzeko egindako ekarpena adierazten du, ez lanpostu berrien sorrera. Guztizkoak, lanpostuak mantentzeko egindako ekarpenaren urteko batezbestekoa adierazten du, betiere 1997 urte kontuan hartu gabe, ez baita jardura osoko urtea.

(2) 2002 eta 2003ko eraginak, efektu zuzen eta zeharkakoez gain, eragindako efektuak ere kontuan hartzen ditu, eta horiek ez ziren aurreko urteetan kontuan hartu.

EUSKADIKO DATU MAKROEKONOMIKOAK	2000-2001
2000ko BPG (milaka eurotan)	40.639.705
2001eko ENPLEGUA (biztanleria okupatua)	849.400
2001eko ZERGA KONTZERTATUEN BILKETA (BEZ, Soz. gaineko Zerga, PFEZ) (milaka eurotan)	6.575.546

Iturria: EUSTAT